



ASOCIACIÓN DE AYUDA A LAS VÍCTIMAS  
POR ACCIDENTES DE TRÁFICO

## **AAVATek AHOLKUA ETA BABESA EMATEN DIZKIZU**

Trafiko istripuak dira hilkortasun eta kalte fisiko gehien eragiten duten arrazoi nagusienetakoak.

Ezin ahaztu liteke eragiten duten trauma osteko kolpe psikologikoa, hala nola haietatik eratorritako ondorioak ere -horietako asko eta asko baliaezintasuna dakartenak-. Gurekin elkarlanean aritzen diren mediku, osteopata, fisioterapeuta, psikologo eta bizipen traumatikoetan espezializatutako gizarte laguntzaileek biktinekiko jokabide egokienak ezagutzen dituzte: Haiek nola lagundu eta tratatu.

## **TRAFIKO ISTRIPU BATEN OSTEKO OHIKO ERREAKZIOAK**

Baliteke trafiko istripu bat jasan ostean ohiko erreakzio hauek nabaritzea:

- Istripua behin eta berriro gogora ekartzea ( ametsetan, pentsamenduetan, etab.)
- Istripua gogora ekartzen diguten estimuluak saihestea ( autora ez igotzea, istripua gertatu zen kalea saihestea, etab.)
- Sorgortuta gauden sentipen orokorra ( ez dugu gogoratzen, kontzentratzeko arazoak ditugu, apatia, etab.)
- Antsietate sintoma fisikoak
- Zure burua desberdin, aldatuta sentitu.

Haur eta nerabeek ondoeza psikologikoa adierazteko helduak ez bezala joka lezakete. Gauzak horrela, haurrek larritasuna, zorabioak, hiperaktibitatea, loezina, gose galera zein neurrigabekeria, aldarte aldaketak, maitasuna eman eta jasotzeko zailtasuna, etengabeko arrisku pertzepzioa, edota bakarrik geratzeko beldurra, besteak beste.

Nerabeengan, adierazpen nabarienak sumingarritasuna, jokabide asoziala ( baita antisoziala ere), itxitasuna, menpekotasunezko jokaerak eta emaitza akademikoetan aldaketak.

Istripua gertatu eta 3 hilabete igaro ostean ezaugarri hauek iraungo balute edota biziagotuko balira, gomendagarria litzake familia-medikuarengana jotzea.